

Argitaratuta doktorego aurreko diru laguntzen deialdia 2014-2015erako

2014/07/07

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, HUHEZIK, publiko egin du deialdia doktorego aurreko diru laguntzen berri emateko 2014-2015 ikasturterako.

Programak bere baitan biltzen ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko doktoretza-ikasketetan zein ikerketa-ibilbidedun master ofizialetan matrikulatuta izanik, ikerkuntza-prestaketan dauden pertsonak, bertan adierazitako laguntzaren baten onuradun izanez gero. Bertan, programaren onuradunei dagozkien laguntza ekonomikoak, egoera juridikoak, eskubide eta betebeharrak zehazten dira, eta eskatzaileek jarraitu beharreko prozedurak aipatutako laguntzak jasotzeko, bai esleipen berrietan bai onartutakoak berritzeko.



ONURADUNAK

Doktorego programan matrikulatuta edo matrikulatzeko prozesuan dauden ikasleentzat.

ESKAEREN FORMALIZAZIOA

Deialdi honetako eskaerak eta gainontzeko dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da 2014ko uztailaren 8tik uztailaren 23ra. Deialdi honetako eskaerak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Idazkaritza Akademikoan entregatu beharko dira edo bertara bidali, posta arruntez.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Doktorego Aurreko Laguntzak 2014-2015.
- Eskaera orria 2014-2015.
- 2014-2015ko Eusko Jaurlaritzako doktoradutza aurreko beka deialdia.